

Sin./Fdo.: ROBERTO CAÑÓN GOROSTIZA - 2021-11-11
NATURAGUNEAK KUD.ETA ZZ.OO.RRAK BIDER.ZUZENDARIORDE NAGUSIA
SUBDIRECTOR/A GENERAL GESTIÓN DE ESPACIOS NATURALES Y SS.GG.

Sin./Fdo.: JOSU BILBAO BEGOÑA - 2021-11-11
INGURUMENEO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO AMBIENTE

Sin./Fdo.: ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA - 2021-11-15
NEKAZARITZA ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE AGRICULTURA



IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO FORU DIPUTATUAREN ZEINAREN BIDEZ, ALDATZEN BAITA 4652/2020 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 2KOA 5346/2019 FORU AGINDUA, AZAROAREN 22KOA, ALDATZEN ZUENA,, ZEINAREN BIDEZ ONESTU BAITZEN IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILAREN 2020-2023 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak bere 7. artikuluan ezartzen duenaren arabera, foru-administrazioko edo edozein entitatetako organoek, dirulaguntzak ezartzeko proposamena eginez gero, alde aurretik ondoko hauek zehaztu behar dituzte dirulaguntzetarako plan estrategiko batean: dirulaguntzen aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburu eta ondorioak, halakoak lortzeko behar den epea, aurreikusten diren kostuak, eta finantzaketa-iturriak.

Bestalde, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onesten duenak, plan estrategiko horrek zer eduki izan behar duen jasotzen du bere 9. artikuluan.

Era berean, Ogasun eta Finantza saileko foru-diputatuak ekainaren 22ko 1322/2014 Foru Agindua eman zuen, eta haren bitartez onartu dirulaguntzen plan estrategikoa egiteko gida eredua.

Goian aipatu dena betetzeko, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru-diputatuak 5346/2019 Foru Agindua eman zuen, azaroaren 22koa, zeinaren bidez onartu zen Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren 2020-2023 Aldirako Plan Estrategikoa, abenduaren 2ko, 4652/2020 Aginte Foralaren bidez aldatuta baitzen.

ORDEN FORAL DE LA DIPUTADA FORAL DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL POR LA QUE SE MODIFICA LA ORDEN FORAL 4652/2020, DE 2 DE DICIEMBRE, QUE MODIFICABA LA ORDEN FORAL 5346/2019, DE 22 DE NOVIEMBRE, POR LA QUE SE APROBÓ EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL PARA EL PERÍODO 2020-2023.

La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece en su artículo 7 que los órganos de la Administración Foral, o de cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un Plan Estratégico de Subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación.

Por su parte, el artículo 9 del Decreto Foral 34/2010 de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, recoge el contenido de dicho plan estratégico.

Adicionalmente, mediante Orden Foral del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas 1322/2014, de 22 de junio, se aprobó el modelo-guía para la realización del plan estratégico de subvenciones.

En cumplimiento de lo señalado anteriormente, mediante Orden Foral de la diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural 5346 /2019, de 22 de noviembre, se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural para el período 2020-2023, que fue modificado por Orden Foral 4652/2020, de 2 de diciembre.

Goraxeago aipaturiko 34/2010 Foru Dekretuaren 11 .1 artikulua dio urtero eguneratuko direla planak, eskura dagoen informazio garrantzitsuen arabera.

Beharrezkoa denez Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eguneratzea, hura birplanteatzeari ekin zaio.

Azaldutako gutzia dela bide, eta kontuan hartuta zer eskumen ematen dizkion Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren titularrari Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, eta, halaber, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31 ko 5/2005 Foru Arauak, idazki hau sinatzen duenak zure esku uzten du foru-agindurako proposamen hau:

FORU AGINDUA:

Lehenengoa.- Aldatzea 4652/2020 Foru Agindua, abenduaren 2koa, 5346/2019, azaroaren 22ko Foru Agindua aldatzen zuena, eta, zeinaren bidez onetsi baitzen Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2020-2023), non jasotzen baitzen sail hori osatzen duten Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak emango dituzten dirulaguntzei buruzko plangintza.

Plan hori **ERANSKIN** gisa gehitzen zaio foru-agindu honi.

Bigarrena.- Foru-agindu hau eta beronen eranskina Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari eta planak ukitutako zerbitzuei jakinaraztea.

Hirugarrena.- Plan hau web-orrialde instituzionalean argitaratzea (www.bizkaia.eus), Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari dagokion atalean.

Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariorde Nagusia/ Subdirector General de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales, ROBERTO CAÑÓN GOROSTIZA

Ingurumeneko Zuzendari Nagusia / Director General de Medio Ambiente, JOSU BILBAO BEGOÑA.

Nekazaritzako zuzendari Nagusia / Directora General de Agricultura, ARANTZA ATUTXA LEJARRETA.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Diputatua / La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, AMAIA ANTJUSTEGI ZIARDA

El artículo 11 .1 del citado Decreto Foral 34/2010 señala que anualmente se procederá a la actualización de los planes, de acuerdo con la información relevante de que se disponga.

Siendo necesaria una actualización del Plan Estratégico de subvenciones se procede a su reformulación.

Por todo cuanto antecede, y habida cuenta de las atribuciones que confiere a la titular del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, de Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, quienes suscriben someten a V.I. la siguiente propuesta de

ORDEN FORAL

Primero.- Modificar la Orden Foral 4652/2020, de 2 de diciembre que modificaba la Orden Foral 5346 /2019, de 22 de noviembre, por la que se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia para el período 2020-2023, que comprendía la planificación relativa a las subvenciones a otorgar por la Dirección General de Agricultura y la Dirección General de Medio Ambiente, así como la Subdirección General de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales, integrantes del citado Departamento.

Dicho plan se adjunta como **ANEXO** a la presente Orden Foral.

Segundo.- Comunicar la presente Orden Foral y su anexo correspondiente, al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, y a los servicios afectados por el plan.

Tercero.- Publicar el presente plan en el apartado del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la página web institucional www.bizkaia.eus

ERANSKINA

ANEXO

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2020-2023)

PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL (2020-2023)

I.- SARRERA:

Foru Administrazioak ematen dituen diru laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31 ko 5/2005 Foru Arauak bere 7. artikuluan ezartzen duenaren arabera, foru-administrazioako edo edozein entitatetako organoek, dirulaguntzak ezartzeko proposamena eginez gero, aldez aurretik ondoko hauek zehaztu behar dituzte dirulaguntzetarako plan estrategiko batean: dirulaguntzen aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburu eta ondorioak, halakoak lortzeko behar den epea, aurreikusten diren kostuak, eta finantzaketa-iturriak.

Bestalde, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onesten duenak, plan estrategiko horrek zer eduki izan behar duen jasotzen du bere 9. artikuluan.

Egungo aurrekontu-egoeran, sail honek kudeatzen dituen edo berak parte hartzen duen gastu-politiketarako aurreikusten den zenbatekoa aurreko urteetako zenbatekoen berdintsua da. Plana lantzeko orduan, ahalik eta gehien maximizatu nahi izaten dira eskura dauden baliabideen etekinak, oinarri hartuta baliabideok egungo neurrian jarraitzen dutela.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren dirulaguntzen plan estrategiko honek bere baitan biltzen ditu indarrean dirauen bitartean sailak izapidetu eta emango dituen dirulaguntza guztiak.

Zehazki, ondoko zuzendaritzek sustatu behar dituzten dirulaguntzak deskribatuko dira:

- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia.
- Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusia

I.- INTRODUCCIÓN:

La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, establece en su artículo 7 que los órganos de la Administración Foral, o de cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un Plan Estratégico de Subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación.

Por su parte, el artículo 9 del Decreto Foral 34/2010 de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, recoge el contenido de dicho plan estratégico.

En los escenarios presupuestarios vigentes la cantidad prevista para las políticas de gasto que gestiona o en los que participa este Departamento son similares a las de años anteriores. El plan se elabora tratando de maximizar los beneficios de los recursos disponibles, partiendo de que estos se mantendrán en torno al volumen actual.

El presente plan estratégico de subvenciones del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, comprende todas las subvenciones cuya tramitación y concesión se promueva por el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural durante el período de vigencia del mismo.

Concretamente, se detallarán subvenciones que se promuevan desde:

- La Dirección General de Medio Ambiente.
- La Dirección General de Agricultura.
- Subdirección General de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak ezartzeko, dagozkion diru-izendapenak sartu beharko dira urtero foru-sailaren aurrekontuetan, eta dagozkion oinarriak eta deialdia onartu.

El establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones correspondientes en los Presupuestos del Departamento Foral de cada año y la aprobación de las correspondientes bases y convocatoria.

Dirulaguntzak ezartzeko, nahitaezkoa da aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzea; beraz, onesten diren aurrekontu-izendapenak eta dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak une oro egongo dira adierazi diren helburu horiei egokitu.

El establecimiento de subvenciones queda supeditado al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las consignaciones presupuestarias que se aprueben y las bases reguladoras de su concesión se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren onespenez ez du esan nahi ustezko onuradunen aldeko inolako eskubiderik sortzen denik, eta onuradunek ezin dute exijitu inolako kalteordain edo konpentsaziorik baldin eta plana ez bada gauzatzen adierazitako moduan.

La aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones no supone la generación de derecho alguno en favor de los potenciales beneficiarios, que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en caso de que el Plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

II.- PLANAREN INSTITUZIO-ETA DENBORA-ESPARRUA

II.- ÁMBITO INSTITUCIONAL Y TEMPORAL DEL PLAN

Plan honek aurreko atalean zehazturiko bi zuzendaritza nagusien eta zuzendariordetza nagusiaren dirulaguntzak biltzen ditu, 2020-2023 urteetarako, honako zehaztasun hauen arabera:

El presente plan abarca las subvenciones de las dos direcciones generales y la Subdirección General detalladas en el apartado anterior, para el período 2020-2023, conforme al detalle siguiente:

Organoa Organismo	2020 (€)	2021 (€)	2022 (€)	2023 (€)	Dirulaguntzak, guztira (€) Total Subvenc (€)
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia Dirección General de Medio Ambiente	3.620.000,00 €	2.560.000,00 €	27.120.000,00 €	32.120.000,00 €	65.420.000,00 €
Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia Dirección General de Agricultura	10.735.000 €	9.596.800 €	10.085.200 €	10.085.200 €	40.502.200,00 €
Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusia / Subdirección General de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales	3.212.780 €	4.137.500 €	4.656.500,00 €	3.832.500 €	105.922.200,00 €
GUZTIRA /TOTAL	17.567.780,00 €	16.294.300,00 €	41.861.700,00 €	46.037.700,00 €	121.761.480,00 €

1.- INGURUMENeko ZUZENDARITZA NAGUSIAK IZAPIDETUTAKO DIRULAGUNTZAK.

Ingurumen Saileko ingurumenaren arloko politika **Bizkaia Goazen 2030** delakoan ezarri diren oinarri eta helburuekin bat dator; egitasmo hori Bizkaiko politika orokorraren gida da aurrerakuntza solidarioa eta iraunkorra lortzeko eta arlokako politika guztien koordinazioaren bidez egiten da, hau da, arlo horien alderdi ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak eta kulturalak garatuz. Egun, indarrean daude **Euskal** Adierazpena, EBren Garapen Iraunkorreko Estrategia –**Europa 2020**– estrategia eta Garapen Iraunkorren Helburuak jasotzen dituen **2030 Agenda** (NBE).

Dirulaguntzen Erregelamenduaren 9.1 artikulua a) letran adierazten denez, atal honetan ezartzen diren helburu estrategikoak:

☑ Planaren indarraldian zehar erakundeek ekintzarekin lortu nahi diren ondorioa eta eragina deskribatzen dituzte.

☑ Kasuan kasuko aurrekontu-programetan zehaztutako helburuei lotuta egon behar dute.

Horrela, Ingurumeneko zuzendaritza nagusiak izapidetzen dituen dirulaguntzen helburu estrategikoak honako hauek dira:

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: hondakinak murriztea eta haien kudeaketa hobetzea.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA: iraunkortasuna txertatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko administrazioetan.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: Bizkaian uraren kudeaketa on bat sustatzea.

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: Bizkaiko hondartzen kalitatea hobetzea.

5. HELBURU ESTRATEGIKOA: Jasangarritasuneko Hezkuntzarako Ekintza Programaren (JHEP) barruko proiektuak gauzatzea.

1.- SUBVENCIONES TRAMITADAS POR LA DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO AMBIENTE.

La política ambiental de la Dirección de Medio Ambiente responde a los principios y objetivos establecidos en Bizkaia Goazen 2030, que es la guía de la política general de Bizkaia para un progreso solidario y sostenible, a través de la coordinación de diferentes políticas sectoriales en sus vertientes económica social, ambiental y cultural.—En la actualidad están vigentes la **Declaración Vasca**, la Estrategia de Desarrollo Sostenible de la UE, **Europa 2020**, así como los Objetivos de Desarrollo Sostenible a través de la **Agenda 2030** (ONU).

Conforme se indica en el apartado a) del artículo 9.1 del RFS, los objetivos estratégicos que se establecen en este apartado:

– Describen el efecto e impacto que se espera lograr con la acción institucional durante el periodo de vigencia del Plan.

– Están vinculados con los correspondientes programas presupuestarios.

Así, los objetivos estratégicos de las líneas de subvenciones tramitadas en la Dirección General de Medio Ambiente son los siguientes:

OBJETIVO ESTRATÉGICO 1: reducir la generación y mejorar la gestión de residuos.

OBJETIVO ESTRATÉGICO 2: integrar la sostenibilidad en las distintas administraciones del Territorio Histórico de Bizkaia.

OBJETIVO ESTRATÉGICO 3: promover una buena gestión del agua en Bizkaia.

OBJETIVO ESTRATÉGICO 4: mejorar de la calidad de las playas de Bizkaia.

OBJETIVO ESTRATÉGICO 5: ejecución de proyectos en el marco del Programa de Acción para la Educación en la Sostenibilidad (PAES).

Horrela, dirulaguntzak emango dira lurraldeko biztanleen bizi-kalitatean zuzenean eragiten duten jarduketak sustatzeko, hala nola hondakinen kudeaketa, udaletako Tokiko Agenda 21 etan jasotako jarduketak, ingurumen-azpiegiturak, energia- aurrezpenaren eta eraginkortasunaren sustapena, biodibertsitatearen babesa eta ingurumen heziketa.

Horretarako, norgehiagokarik gabeko araubidearen nahiz norgehiagokaren araubidearen bidez emango ditu dirulaguntzak, deialdi publikoa eginez edo kontzesioa zuzenean eginez, urteko Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan aurreikusten diren baldintzen arabera.

Ondoren, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak izapidetuko dituen dirulaguntza lerroak zehaztuko dira, kasuan kasu lortu nahi den helburu estrategikoaren arabera sailkatuta:

1.- 1. HELBURU ESTRATEGIKOA: HONDAKINAK MURRIZTEA ETA HAIEN KUDEAKETA HOBETZEA.

1.1.-DIRULAGUNTZA LERROA: ETXeko HONDAKIN ORGANIKOAK BILTZEKO EDUKIONTZIA (5. EDUKIONTZIA, PERTSONALIZATUA) EZARTZEKO DIRULAGUNTZAK.

1.1.1.- HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Biztanle bakoitzeko eragiten diren hiri hondakinak murriztea.
- Materia organikoa konposta egiteko aprobetxatzea sustatzea.
- Lehen mailako hondakinik eta hondakin gordinik batere ez isurtzea.

1.1.2.- EKINTZA-PLANA ETA AURREIKUSIRIKO EPEA:

Jarduketa hauek garatzeko dirulaguntza lerro bat onetsiko da:

- Edukiontziak, poltsa konpostagarriak, etxeetarako zakarrontziak, giltzak, autokonpostagailuak, komunitateko konpostagailuak eta birringailuak erostea.
- Komunitateko konpostajearen prozesua kontrolatzeko laguntza teknikoak, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen apirilaren 9ko 63/2019 Dekretua aplikaturik. Lerro hau ez da sartzen 2021an.
- Bosgarren edukiontzia ezartzeko sensibilizazio-kanpainak eta hondakinen prebentzioari lotutako beste ekintza batzuk. Lerro hau ez da sartzen 2021an.

Aurreikuspena da dirulaguntzen lerro honek bere horretan jarraitzea plana indarrean dagoen bitartean.

De esta forma, se concederán subvenciones con la finalidad de fomentar actuaciones que inciden directamente en la calidad de vida de la ciudadanía del territorio, como son la gestión de residuos, actuaciones contempladas en las Agendas Locales 21 municipales, infraestructuras ambientales, el fomento del ahorro y la eficiencia energética, protección de la biodiversidad y educación ambiental.

Para ello, concederá subvenciones en régimen de concurrencia bien simple, bien competitiva mediante convocatoria pública o mediante concesión directa en los términos previstos en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para cada año presupuestario.

A continuación se detallan las líneas de subvenciones cuya tramitación prevé la Dirección General de Medio Ambiente, ordenadas en función del objetivo estratégico que se persiga:

1.- OBJETIVO ESTRATÉGICO 1: REDUCIR LA GENERACIÓN Y MEJORAR LA GESTIÓN DE RESIDUOS.

1.1.- LÍNEA DE SUBVENCIÓN: SUBVENCIONES PARA LA IMPLANTACIÓN DEL CONTENEDOR DE RECOGIDA SELECTIVA DE LA FRACCIÓN ORGÁNICA DEL RESIDUO DOMÉSTICO (5º CONTENEDOR PERSONALIZADO).

1.1.1.- OBJETIVOS ESPECÍFICOS:

- Reducir la cantidad de residuos urbanos generados por habitante.
- Promover el aprovechamiento de la materia orgánica para producir compost.
- Alcanzar el objetivo cero de residuos primarios o crudos.

1.1.2.- PLAN DE ACCIÓN Y PLAZO ESTIMADO:

Se aprobará una línea de subvenciones para el desarrollo de las actuaciones siguientes:

- Compra de contenedores, bolsas compostables, cubos domiciliarios, llaves, autocompostadoras, compostadoras comunitarias y trituradoras
- Asistencia Técnica para el control del proceso en el Compostaje Comunitario, en aplicación del DECRETO 63/2019, de 9 de abril, por el que se establece el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario. Esta línea no se incluye en el ejercicio 2021.
- Campañas de sensibilización para la implantación del quinto contenedor y otras acciones relacionadas con la prevención de residuos. Esta línea no se incluye en el ejercicio 2021.

Se prevé que la presente línea de subvención se mantenga a lo largo del plazo de vigencia del plan.

1.1.3.- AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA-ITURRIAK:

1.1.3.- COSTES PREVISIBLES Y FUENTES DE FINANCIACIÓN:

KAPITULUA/CAPITULO	2020	%	2021	%	2022	%	2023	%
4	600.000,00 €	100	0,00 €	100	600.000,00 €	100	600.000,00 €	100
7	400.000,00 €	100	500.000,00 €	100	400.000,00 €	100	400.000,00 €	100
GUZTIRA/TOTAL	1.000.000 €	100	500.000,00 €	100	1.000.000,00 €	100	1.000.000,00 €	100

Aurreko taulatik ondorioztatzen denaren arabera, erakunde onuradunek garatuko dituzten jarduketan %100 finantzatuko dira, funts propioetatik ordainduz, dirulaguntzaren araudiak kasuan-kasuan ezartzen dituen mugak kontuan hartuz.

Conforme se desprende de la tabla anterior, se financiarán, con cargo a fondos propios, el 100% de las actuaciones a desarrollar por parte de las entidades beneficiarias, con los límites que en cada caso se establezcan en la normativa reguladora de la subvención.

1.1.4.- UKITUTAKO SEKTOREAK:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak.
- Hiriko hondakinak jaso eta garraiatzearen arloan eskumenak dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko mankomunitateak.
- Kapital osoa Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri batena edo batzuen duten pertsona juridikoak, sozietatearen egoitza lurralde historiko horretan dutenak, eta eskumena dutenak hiriko hondakinen bilketan eta garraioan.

1.1.4.- SECTORES AFECTADOS:

- Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.
- Mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia con competencias en materia de recogida y transporte de residuos urbanos.
- Personas jurídicas cuyo capital pertenezca íntegramente a uno o varios municipios del Territorio Histórico de Bizkaia y cuyo domicilio social radique en dicho territorio histórico, con competencias en materia de recogida y transporte de residuos urbanos.

1.1.5.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA:

Urtero onartuko da arau-xedapena bat (Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretu bat), dirulaguntzaren oinarri-arauak jasoko dituena.

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka araubidea izango da.

1.1.5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN E INSTRUMENTACIÓN DE SUBENCIONES:

Anualmente, se aprobará la disposición normativa (Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia) que contenga las bases reguladoras de la subvención.

El procedimiento de concesión será de concurrencia competitiva.

1.1.6.- ADIERAZLEAK:

- Bosgarren edukiontzia instalaturik duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien kopurua.
- Biohondakin tonak, Bizkaiko Hondakinen Behatokiak emaniko datuen arabera.

1.1.6.- INDICADORES:

- Número de municipios del Territorio Histórico de Bizkaia en los que se ha implantado el quinto contenedor.
- Toneladas de bioresiduo, de conformidad con los datos proporcionados por el Observatorio de Residuos de Bizkaia.

2.- 2. HELBURU ESTRATEGIKOA: IRAUNKORTASUNA TXERTATZEA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOETAN

2.1.-DIRULAGUNTZA LERROA: ENERGIA-ERAGINKORTASUNAREN ARLOAN TOKIKO EKINTZA PLANAK ETA ENERGIAREN ARLOKO BESTE UDAL PLAN BATZUK EZARTZEKO (TOKIKO AGENDA 21) DIRULAGUNTZAK.

2.1.1.- HELBURU ESPEZIFIKOAK:

– Bizkaiko Lurralde Historikoetako udalerrri eta mankomunitateetako Tokiko Agenda 21etan eta energiaren arloko beste udal plan batzuetan aurreikusten diren ekintzak ezartzea, eraginkortasun energetikoaren arloan.

2.1.2.- EKINTZA-PLANA ETA AURREZ IKUSITAKO EPEA:

Urtero onartuko da arau-xedapena bat (Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretu bat), dirulaguntzaren oinarri-arauak jasoko dituen.

Dirulaguntzen lerro hau 2021etik Aurrera desagertzen da.

2.1.3.- AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA-ITURRIAK:

KAPITULUA/CAPITULO	2020	%	2021	%	2022	%	2023	%
4	0		50.000 €	100	100.000 €	100	100.000 €	100
7	1.000.000 €	75	450.000 €	100	900.000 €	95	900.000 €	95
GUZTIRA/TOTAL	1.000.000 €	75	500.000 €	100	1.000.000 €	95	1.000.000 €	95

Aurreko taulatik ondorioztatzen denaren arabera, erakunde onuradunek garatuko dituzten jarduketan %95 finantzatuko dira gehienez, funts propioetatik ordainduz, dirulaguntzaren araudiak kasuan-kasuan ezartzen dituen mugak kontuan hartuz, erakunde eskatzaileen biztanle-kopuruaren arabera.

2.1.4.- UKITUTAKO SEKTOREAK:

– Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak.

– Bizkaiko Lurralde Historikoko mankomunitateak, baldin eta eskatzen duten laguntza udalerriaz goragoko izaera duten proiektuak egiteko bada eta proiektuok kasuan kasuko proiektuak ukitzen dituen udalerrietako Tokiko Agenda 21 edo 2030etan, energiaren arloko edo klima aldaketari buruzko beste udal plan batzuetan jasota badaude, proiektua egiteko eskumena haiek dutelarik.

2.1.5.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA:

Dirulaguntza emateko prozedura norgehiagokarik gabekoa zen 2016. urtera arte, eta 2017. urtetik aurrera, berriz, norgehiagoka. 2010. eta 2021. urteetan, Klima aldaketa eta eraginkortasun energetikorako dirulaguntzen dekretuan, norgehiagokarik gabeko araubidea erabiliko da dirulaguntzak lehenbailehen eman eta jakinarazi behar zaizkielako onuradunei. Izan ere, proiektu handiak egiteko emango zaizkie dirulaguntza hauek toki-erakundeei, eta udalek azkar jardun behar dute proiektuak urte naturalaren barruan prestatu, lizitatu eta adjudikatzeko. 2022 eta 2023 urteetan berriro ere erabili da norgehiagokoaren prozedura dirulaguntza banaketetan.

2.-OBJETIVO ESTRATÉGICO 2: INTEGRAR LA SOSTENIBILIDAD EN LAS DISTINTAS ADMINISTRACIONES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

2.1.- LINEA DE SUBVENCION: SUBVENCIONES PARA LA IMPLANTACIÓN DE PLANES DE ACCIÓN LOCAL (AGENDA LOCAL 21) Y OTROS PLANES MUNICIPALES EN MATERIA DE ENERGÍA EN MATERIA DE EFICIENCIA ENERGÉTICA.

2.1.1.- OBJETIVOS ESPECÍFICOS:

– Implantar las acciones previstas en las distintas Agendas Locales 21 de los municipios y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia y otros planes municipales de energía, en materia de eficiencia energética.

2.1.2.- PLAN DE ACCIÓN Y PLAZO ESTIMADO:

Anualmente, se aprobará la disposición normativa (Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia) que contenga las bases reguladoras de la subvención.

la presente línea de subvención desaparece a partir de 2021

2.1.3.- COSTES PREVISIBLES Y FUENTES DE FINANCIACIÓN:

Conforme se desprende de la tabla anterior, se financiarán, con cargo a fondos propios, un máximo del 95% de las actuaciones a desarrollar por parte de las entidades beneficiarias, con los límites que en cada caso se establezcan en la normativa reguladora de la subvención, en función de la población de las entidades solicitantes.

2.1.4.- SECTORES AFECTADOS:

– Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.

– Las Mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, cuando soliciten la ayuda para realizar proyectos de carácter supramunicipal que estén incluidos en las Agendas Locales 21 o 2030, planes energéticos u otros planes sobre cambio climático de los municipios a que afecte el proyecto de que se trate, debiendo ostentar la competencia para la realización del citado proyecto.

2.1.5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN E INSTRUMENTACIÓN DE SUBENCIONES:

– El procedimiento de concesión era de concurrencia simple hasta 2016 y concurrencia competitiva desde 2017. En 2020 y 2021 el Decreto de Subvenciones de Cambio climático y eficiencia energética utiliza el procedimiento de concesión de libre concurrencia, justificado por la necesidad de conceder y comunicar las subvenciones con prontitud a los beneficiarios, dado que las mismas se concederá a las entidades locales para proyectos de gran envergadura, cuya elaboración, licitación y adjudicación dentro del año natural requerirá de los Ayuntamiento una rápida actuación. En los años 2022 y 2023 se ha retornado al procedimiento de concurrencia competitiva.

2.1.6.- ADIERAZLEAK:

Honako alderdi hauen azterketa egingo da urtero:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko zenbat udalerritan gauzatu diren diruz lagundutako proiektuak.
- Emandako anergia aurrezpena (kWh/urte; euro/urte)

2.1.6.- INDICADORES:

Se realizará, anualmente, un análisis de los aspectos siguientes:

- Número de municipios del Territorio Histórico de Bizkaia en que se han llevado a cabo proyectos subvencionados.
- Ahorro energético obtenido (kWh/año)

3.- 3. HELBURU ESTRATEGIKOA: BIZKAIAN URAREN KUDEAKETA ON BAT SUSTATZEA

3.1.-DIRULAGUNTZA LERROA: BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREKIN SINATURIKO HITZARMENA, UR HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO OBRAK FINANTZATZEKO.

3.1.1.- HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Bermaturik izatea ur industrialen eta hiri uren isurketa guztiak jaso eta arazten direla, bi araudi hauek eskatzen dituzten baldintzen arabera: 2000/60/EB Uren Esparru Zuzentaraua, batetik, eta, bestetik, 1991/1271/EB Zuzentaraua, Hiriko Ur Hondakinen Saneamenduari buruzkoa.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko ur-masen egoera ekologiko ona lortzen laguntzea.
- Udalek uren horniduran eta saneamenduan dituzten eskumenak eraginkorrak direla bermatzea.
- Bizkaiko ibai-ekosistemak berreskuratzea, eta herritarrek ur nahikoa eta kalitate egokikoa izatea.

3.1.2.- EKINTZA-PLANA ETA AURREZ IKUSITAKO EPEA:

Hitzarmen bat sinatzea Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoarekin, zeinaren bidez Aldundiak konpromisoa hartuko duen hitzarmen horretan jasotzen diren zenbait hornidura eta saneamendu lan finantzatzeko.

Aurreikuspena da dirulaguntzen lerro honek bere horretan jarraitzea plana indarrean dagoen bitartean.

3.1.3.- AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZIAZIO-ITURRIAK:

KAPITULUA/CAPITULO	2020	%	2021	%	2022	%	2023	%
7	1.000.000 €	100	1.000.000 €	100	25.000.000 €	100	30.000.000 €	100
GUZTIRA/TOTAL	1.000.000 €	100	1.000.000 €	100	25.000.000 €	100	30.000.000 €	100

3.1.4.- UKITUTAKO SEKTOREAK:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak.

3.- OBJETIVO ESTRATÉGICO 3: PROMOVER UNA BUENA GESTIÓN DEL AGUA EN BIZKAIA

3.1.-LÍNEA DE SUBVENCIÓN: CONVENIO CON EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO-BIZKAIA PARA LA FINANCIACIÓN DE OBRAS DE ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO DE AGUA.

3.1.1.- OBJETIVOS ESPECÍFICOS:

- Garantizar la recogida y depuración de todos los vertidos en aguas industriales y urbanas en las condiciones exigidas por la Directiva Marco del Agua 2000/60/CE y la Directiva sobre saneamiento de las aguas residuales urbanas 1991/1271/EB
- Colaborar en el buen estado ecológico de las masas de agua del Territorio Histórico de Bizkaia.
- Garantizar la efectividad de las competencias municipales en materia de abastecimiento saneamiento.
- Recuperación de ecosistemas fluviales en Bizkaia y que la ciudadanía disponga de agua en cantidad y calidad adecuadas.

3.1.2.- PLAN DE ACCIÓN Y PLAZO ESTIMADO:

Firma de un Convenio con el Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, en virtud del cual la Diputación se compromete a financiar determinadas obras de abastecimiento y saneamiento incluidas en el mismo.

Se prevé que la presente línea de subvención se mantenga a lo largo del plazo de vigencia del plan.

3.1.3.- COSTES PREVISIBLES Y FUENTES DE FINANCIACIÓN:

3.1.4.- SECTORES AFECTADOS:

- Municipios del Territorio Histórico de Bizkaia.

3.1.5.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA.:

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoari dirulaguntza bat ematea, hitzarmen bidez bideratuta.

3.1.6.- ADIERAZLEAK:

Urtero aztertuko dira dirulaguntzen lerro honen arabera bukatutako proiektuak.

3.1.5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN E INSTRUMENTACIÓN DE SUBENCIONES:

Subvención al Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia instrumentalizada a través de la firma de un Convenio.

3.1.6.- INDICADORES:

Se realizará, anualmente, un análisis de los proyectos finalizados conforme a la presente línea de ayudas

4.- 4. HELBURU ESTRATEGIKOA: BIZKAIKO HONDARTZEN KALITATEA HOBETZEA

4.1.- DIRULAGUNTZA LERROA: GETXOKO HONDARTZEN GARBIKETA FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZA, BIZKAIKO HONDARTZEN KUDEAKETA ETA KALITATEARI BURUZKO AKORDIOAREN BARNEAN.

4.1.1.- HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Getxoko hondartzak garbitzea, kalitateko eta ingurumen-babeseko estandar gorenekin.
- Bizkaiko hondartzen kudeaketarako eta kalitaterako esparru-akordioa aplikatzea.

4.1.2.- EKINTZA-PLANA ETA AURREZ IKUSITAKO EPEA:

Getxoko Udalarekin hitzarmen bat sinatzea, 2019ra arteko iraupenarekin.

4.1.3.- AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA-ITURRIAK:

4. OBJETIVO ESTRATÉGICO 4: MEJORAR DE LA CALIDAD DE LAS PLAYAS DE BIZKAIA

4.1.-LÍNEA DE AYUDA: SUBVENCIÓN PARA FINANCIAR LA LIMPIEZA PLAYAS DE GETXO DENTRO DEL ACUERDO PARA LA GESTIÓN Y LA CALIDAD DE LAS PLAYAS DE BIZKAIA

4.1.1.- OBJETIVOS ESPECÍFICOS:

- La realización de la limpieza de las playas de Getxo con los máximos estándares de calidad y de protección ambiental.
- Aplicación del Acuerdo Marco para la Gestión y la Calidad de las Playas de Bizkaia.

4.1.2.- PLAN DE ACCIÓN Y PLAZO ESTIMADO:

Firma de un Convenio con el Ayuntamiento de Getxo, con duración hasta 2019 y que podría ser prorrogado hasta final del periodo.

4.1.3.- COSTES PREVISIBLES Y FUENTES DE FINANCIACIÓN:

KAPITULUA/CAPITULO	2020	%	2021	%	2022	%	2023	%
4	500.000,00 €	100	500.000,00 €	100	0 €	100	0 €	100
GUZTIRA/TOTAL	500.000,00 €	100	500.000,00 €	100	0 €	100	0 €	100

4.1.4.- UKITUTAKO SEKTOREAK:

Getxoko Udala eta bertako hondartzak erabiltzen dituzten pertsonak.

4.1.5.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA.:

Getxoko Udalari dirulaguntza bat ematea, hitzarmen bidez bideratuta.

4.1.6.- ADIERAZLEAK:

4.1.4.- SECTORES AFECTADOS:

Ayuntamiento de Getxo y población usuaria de sus playas.

4.1.5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN E INSTRUMENTACIÓN DE SUBENCIONES:

Subvención instrumentada a través de la firma de un convenio con el Ayuntamiento de Getxo.

4.1.6.- INDICADORES:

5.- 5. HELBURU ESTRATEGIKOA: JASANGARRITASUNEN HEZKUNTZARAKO EKINTZA PROGRAMAREN (JHEP) BARRUKO PROIEKTUAK GAUZATZEA

5.- OBJETIVO ESTRATÉGICO 5: EJECUCIÓN DE PROYECTOS EN EL MARCO DEL PROGRAMA DE ACCIÓN PARA LA EDUCACIÓN EN LA SOSTENIBILIDAD (PAES

5.1.- DIRULAGUNTZA LERROA: JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZAKO 2020ko EKINTZA-PROGRAMA EZARTZEKO DIRULAGUNTZA; PROGRAMA HORRETAN, GETXOKO AKUARIOAREN JARDUERAK BILTZEN DIRA.

5.1.- LINEA DE SUBVENCIÓN: SUBVENCIÓN PARA IMPLEMENTAR EL PROGRAMA DE ACCIÓN DE EDUCACIÓN PARA LA SOSTENIBILIDAD 2020 QUE RECOGE LAS ACTIVIDADES DEL ACUARIO DE GETXO.

5.1.1.- HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Ingurumen heziketako jarduerak sustatzen ditu, itsasoko biologiarren eremuan.'

5.1.1.- OBJETIVOS ESPECÍFICOS:

- Promueve actividades de educación ambiental, en el ámbito de la biología marina.

5.1.2.- EKINTZA-PLANA ETA AURREZ IKUSITAKO EPEA:

Getxoko Udalarekin hitzarmen bat sinatu zen 2006an, 2019. urtean likidatu dena. Edonola ere, hitzarmen berri bat sinatuko da 2020. urterako.

5.1.2.- PLAN DE ACCIÓN Y PLAZO ESTIMADO:

Se firmó un Convenio con el Ayuntamiento de Getxo en 2006 que ha sido liquidado el año 2019. No obstante, se firmará un nuevo convenio para 2020.

5.1.3.- AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA-ITURRIAK:

5.1.3.- COSTES PREVISIBLES Y FUENTES DE FINANCIACIÓN:

KAPITULUA/CAPITULO	2020	%	2021	%	2022	%	2023	%
4	60.000€	97,37	0€	0	0€	0	0€	0
GUZTIRA/TOTAL	60.000€	97,37	0€	0	0€	0	0€	0

Aurreko taulatik ondorioztatzen denaren arabera, erakunde onuradunek garatuko dituzten jarduketan %97,37 finantzatu dira. funts propioetatik ordainduz, dirulaguntzaren araudiak kasuan-kasuan ezartzen dituen mugak kontuan hartuz.

Conforme se desprende de la tabla anterior, se financiarán, con cargo a fondos propios, el 97,37% de las actuaciones a desarrollar por parte de las entidades beneficiarias, con los límites que en cada caso se establezcan en la normativa reguladora de la subvención.

5.1.4.- UKITUTAKO SEKTOREAK:

Biztanleria osoa, ikastetxeak eta akuarologia taldeak.

5.1.4.- SECTORES AFECTADOS:

La población en general, centros de enseñanza y colectivos de acuarología.

5.1.5.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA.:

Getxoko Udalarekin hitzarmena sinatzea.

5.1.5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN E INSTRUMENTACIÓN DE SUBENCIONES:

Firma de Convenio con el Ayuntamiento de Getxo.

5.1.6.- ADIERAZLEAK:

- Zentrora bertaratu direnen kop. (sexuka, tipologiaka eta adin-taldeka berezita).
- Egindako hedapen jarduketan kop.
- Egindako ikerketa jarduketan kop.
- Gogobetetze-inkestak, bakarkakoak zein taldekakoak.

5.1.6.- INDICADORES:

- Nº de asistentes al centro (desagregado por sexo, tipología y grupos de edad).
- Nº de actuaciones de difusión realizadas.
- Nº de actuaciones de investigación realizadas.
- Encuentras de satisfacción, tanto individuales como grupales.

5.2.- DIRULAGUNTZA LERROA: URDAIBAI BIRD CENTER-EN INGURUMENARI BURUZKO HEZKUNTZA EKINTZAKO ETA PARTAIDETZAKO EKINTZAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZA.

5.2.1.- HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Ingurumenari buruzko hezkuntza- eta partaidetza-jarduerak sustatzen ditu, hegazti eta itsas biologiaren esparruan.

5.2.2.- EKINTZA-PLANA ETA AURREZ IKUSITAKO EPEA:

Hitzarmen bat sinatu zen BBK Banku Fundazioarekin eta Aranzadi Zientzia Elkartearekin 2020, 2021, 2022 y 2023 urteetan.

5.2.3.- AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA-ITURRIAK:

5.2.- LINEA DE SUBVENCIÓN: SUBVENCIÓN PARA FINANCIAR ACTIVIDADES DE ACCIÓN DE EDUCACIÓN Y PARTICIPACIÓN AMBIENTAL EN EL URDAIBAI BIRD CENTER.

5.2.1.- OBJETIVOS ESPECÍFICOS:

- Promueve actividades de educación y participación ambiental, en el ámbito de la biología avícola y marina.

5.2.2.- PLAN DE ACCIÓN Y PLAZO ESTIMADO:

Se firmó un Convenio con la Fundación Bancaria BBK y Aranzadi Zientzia Elkarte los años 2020, 2021, 2022 y 2023.

5.2.3.- COSTES PREVISIBLES Y FUENTES DE FINANCIACIÓN:

KAPITULUA/CAPITULO	2020	%	2021	%	2022	%	2023	%
4	60.000 €	60	60.000 €	61,86	60.000€	60	60.000 €	60
GUZTIRATOTAL	60.000 €	60	60.000 €	61,86	60.000 €	60	60.000 €	60

Aurreko taulatik ondorioztatzen denaren arabera, erakunde onuradunek garatuko dituzten jarduketan %60 finantzatu dira. funts propioetatik ordainduz, dirulaguntzaren araudiak kasuan-kasuan ezartzen dituen mugak kontuan hartuz.

Conforme se desprende de la tabla anterior, se financiarán, con cargo a fondos propios, el 60 % de las actuaciones a desarrollar por parte de las entidades beneficiarias, con los límites que en cada caso se establezcan en la normativa reguladora de la subvención.

5.2.4.- UKITUTAKO SEKTOREAK:

Biztanleria osoa, ikastetxeak eta akuarologia nahiz hegazti-faunaren inguruko taldeak.

5.2.4.- SECTORES AFECTADOS:

La población en general, centros de enseñanza y colectivos de acuicultura y fauna avícola

5.2.5.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA.:

Zuzeneko dirulaguntza, BBK Banku Fundazioarekin eta Aranzadi Zientzia Elkartearekin hitzarmena sinatuz gauzatua.

5.2.5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN E INSTRUMENTACIÓN DE SUBENCIONES:

Subvención directa instrumentada a través de la firma de Convenio con Fundación Bancaria BBK y Aranzadi Zientzia Elkarte.

5.2.6.- ADIERAZLEAK:

- Zentrora bertaraturikoen kopurua (sexu, tipologia eta adin-taldeen arabera bereizita).
- Egindako hedapen-jarduketan kopurua.
- Egindako ikerketa-jarduketan kopurua.
- Gogobetetze-inkestak, banakakoak zein taldekakoak.

5.2.6.- INDICADORES:

- Nº de asistentes al centro (desagregado por sexo, tipología y grupos de edad).
- Nº de actuaciones de difusión realizadas.
- Nº de actuaciones de investigación realizadas.
- Encuestas de satisfacción, tanto individuales como grupales.

5.3.- DIRULAGUNTZA LERROA: BBK KLIMA ZENTROAREN EKINTZAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZA.

5.3.1.- HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Ingurumenari buruzko hezkuntza- eta partaidetza-jarduerak sustatzen ditu, klima aldaketaren esparruan.

5.3.- LINEA DE SUBVENCIÓN: SUBVENCIÓN PARA FINANCIAR ACTIVIDADES DEL CENTRO BBK KLIMA

5.3.1.- OBJETIVOS ESPECÍFICOS:

- Promueve actividades de educación y participación ambiental, en el ámbito del cambio climático.

5.3.2.- EKINTZA-PLANA ETA AURREZ IKUSITAKO EPEA:

Hitzarmen bat sinatu zen BBK Banku Fundazioarekin 2022 y 2023 urteetan.

5.3.2.- PLAN DE ACCIÓN Y PLAZO ESTIMADO:

Se firmó un Convenio con la Fundación Bancaria BBK los años 2022 y 2023.

5.3.3.- AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA-ITURRIAK:

5.3.3.- COSTES PREVISIBLES Y FUENTES DE FINANCIACIÓN:

KAPITULUA/CAPITULO	2020	%	2021	%	2022	%	2023	%
4	0€	60	0€	61,86	60.000€	60	60.000€	60
GUZTIRA/TOTAL	0€	60	0€	61,86	60.000€	60	60.000€	60

Aurreko taulatik ondorioztatzen denaren arabera, erakunde onuradunek garatuko dituzten jarduketan %60 finantzatuko dira. funts propioetatik ordainduz, dirulaguntzaren araudiak kasuan-kasuan ezartzen dituen mugak kontuan hartuz.

Conforme se desprende de la tabla anterior, se financiarán, con cargo a fondos propios, el 60 % de las actuaciones a desarrollar por parte de las entidades beneficiarias, con los límites que en cada caso se establezcan en la normativa reguladora de la subvención.

5.3.4.- UKITUTAKO SEKTOREAK:

Biztanleria osoa, ikastetxeak eta klima-aldaketaren inguruko taldeak.

5.3.4.- SECTORES AFECTADOS:

La población en general, centros de enseñanza y organizaciones vinculadas al cambio climático.

5.3.5.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA.:

Zuzeneko dirulaguntza, BBK Banku Fundazioarekin hitzarmena sinatuz gauzatua.

5.3.5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN E INSTRUMENTACIÓN DE SUBENCIONES:

Subvención directa instrumentada a través de la firma de Convenio con Fundación Bancaria BBK.

5.3.6.- ADIERAZLEAK:

- Zentrora bertaraturikoen kopurua (sexu, tipologia eta adin-taldeen arabera bereizita).
- Egindako hedapen-jarduketan kopurua.
- Gogobetetze-inkestak, banakakoak zein taldekakoak.

5.3.6.- INDICADORES:

- Nº de asistentes al centro (desagregado por sexo, tipología y grupos de edad).
- Nº de actuaciones de difusión realizadas.
- Encuestas de satisfacción, tanto individuales como grupales.

2.- NEKAZARITZA ZUZENDARITZA NAGUSIAK IZAPIDETUTAKO DIRULAGUNTZAK.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak planaren indarraldian zehar sustatzen dituen dirulaguntza guztiak sartzen dira Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiaren plan estrategikoan.

Planaren helburu estrategikoak hauek dira:

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: Nekazaritzako ustategien titularren errenta eta lan-baldintzak hobetzea.
2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Nekazaritza egiturak modernizatzea 2015-2020 aldirako Landa Garapenerako Programaren barruan.
3. HELBURU ESTRATEGIKOA: Landa-eremuen gizarte-ekonomiako egitura mantentzea eta prestakuntza.
4. HELBURU ESTRATEGIKOA: Bizkaiko lehen sektorearen komunikazioa eta egituraketa hobetzea.

Helburu estrategiko bakoitzaren jarduketa-planean zehazten dira dirulaguntzen aplikazioarekin lortu nahi diren helburu eta ondorioak, halakoak lortzeko behar den epea, aurreikusten diren kostuak, eta finantzaketa-iturriak, ondoren zehaztuko direnak:

1.- 1. HELBURU ESTRATEGIKOA: NEKAZARITZAKO USTATEGIEN TITULARREN ERRENTA ETA LAN-BALDINTZAK HOBETZEA.

1.1.-DIRULAGUNTZA LERROA: MENDI-NEKAZARITZARAKO KONPENTSAZIO-ORDAINAK.

1.1.1. HELBURU ESPEZIFIKOAK:

Mendi-nekazaritzako ustategien defizit naturalak konpentsatzea.

1.1.2.- EKINTZA-PLANA ETA AURREZ IKUSITAKO EPEA:

Finantza-laguntza.

Aurreikuspena da dirulaguntzen lerro honek bere horretan jarraitzea plana indarrean dagoen bitartean.

1.1.3.- AURREIKUSTEN DIREN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA-ITURRIAK:

2.- SUBVENCIONES TRAMITADAS POR LA DIRECCIÓN GENERAL DE AGRICULTURA.

El Plan Estratégico de la Dirección General de Agricultura comprende todas las subvenciones cuyo establecimiento se promueva por el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural durante el período de vigencia del mismo.

Los objetivos estratégicos de este Plan serán los siguientes:

- OBJETIVO ESTRATÉGICO 1: Mejora de rentas y condiciones laborales de las personas titulares de explotaciones agrarias.
- OBJETIVO ESTRATÉGICO 2: Modernización de las estructuras agrarias en el marco del Plan de Desarrollo Rural 2015-2020.
- OBJETIVO ESTRATÉGICO 3: Mantenimiento tejido económico-económico de las zonas rurales y formación.
- OBJETIVO ESTRATÉGICO 4: Mejora de la interlocución y vertebración del primer sector de Bizkaia.

El Plan de actuación de cada uno de los objetivos estratégicos concreta las líneas de subvención en las que se establecerán los objetivos y efectos que se pretende con su aplicación, el plazo, los costes previsibles para su realización y las fuentes de financiación, que se concretan a continuación:

1.- OBJETIVO ESTRATÉGICO 1: MEJORA DE RENTAS Y CONDICIONES LABORALES DE LAS PERSONAS TITULARES DE EXPLOTACIONES AGRARIAS

1.1. LÍNEAS DE SUBVENCIÓN: INDEMNIZACIONES COMPENSATORIAS DE AGRICULTURA DE MONTAÑA.

1.1.1.OBJETIVOS ESPECÍFICOS:

